

TXIKI-TXOKO BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

KOMUNIKAZIO BIDEAK

Txiki-Txoko Akademiak gurasoekin eta bezeroekin harremanetan egoteko bide nagusiak

Emaila:



Emaila galderak egiteko edo informazioa eskatzeko erabiltzen da. Gurasoek ordutegiak, prezioak edo zerbitzuei buruzko xehetasunak argitu nahi dituztenean baliatzen dute. Gure aldetik, informazioa edo ekintza berrien berri emateko tresna garrantzitsua da.

Telefonia:

Telefonia modu azkar eta pertsonalean komunikatzeko bide ona da. Gurasoek zalantzak argitu edo zerbait berezia galdetu nahi dutenean erabiltzen dute, eta horrek erantzun azkarrak eta pertsonalizatuak eskaintzeko aukera ematen digu.



Sare sozialak:



Sare sozialen bidez, hala nola Instagramen (txiki.txoko_akademia), akademiaren ekintza berriak edo baliagarriak izan daitezkeen hezkuntza-edukiak partekatzen ditugu. Horrela, gurasoek informazioa azkar eta modu bisual batean jasotzen dute.

Aurrez aurre:

Gure kokapena, Leioako erdigunean, guraso askorentzat eroso da. Akademiara hurbiltzen direnean, arreta pertsonala jasotzeko aukera dute, eta modu zuzenean beren beharrak azaldu ditzakete.

Salmenta edo izen-emate momentua:

Lehen harremanean, gurasoei gure espazioak eta zerbitzuak erakusten dizkiegu. Helburua da konfiantza eta giro atsegina sortzea, gurasoek eta haurrek akademian beren lekua aurkituta senti dezaten.



BANAKETA BIDEAK

Txiki-Txoko Akademiaren zerbitzuak gurasoei eta haurrei iristeko modua honakoa da:

1. Kokapena eta zerbitzua:

Akademia Leioako erdigunean dago, polikiroldegitik eta ikastoletatik gertu. Zerbitzu guztiak zuzenean akademian eskaintzen dira, espazio eroso eta egokituekin:



- **Psikomotrizitate gela:** Txikien mugimendua eta koordinazioa lantzeko.
- **Siesta gela:** Atsedeen hartzeko gela, txikientzat aproposa.
- **Etterako lanak egiteko gela:** Nagusientzat pentsatuta.
- **Liburuen eta jolasen gela:** Balioak eta irakurzaletasuna lantzeko.



2. Materialak eta filosofia jasangarria:

Material manipulatio bereziak erabiltzen dira: matematikarako materialak, testurak... Guztia material birziklatuekin eginda. Ez dira pantailak edo plastikoak erabiltzen, ingurumenarekiko eta haurren ongizatearekiko errespetua mantenduz.

3. Banaketa zuzena:

Zerbitzuak zuzenean akademian eskaintzen dira, beraz, ez dugu bitartekaririk behar. Sare sozialen eta emailen bidez informazioa zabalduko dugu.

4. Online eta aurrez aurreko informazioa:

Gurasoek webgunearen bidez informazioa eskuratu edo hitzorduak erreserbatu ahal izango dituzte. Akademian bertan arreta jasotzeko aukera ere izango dute. Txiki-Txokok kokapen eroso, zerbitzu hurbila eta filosofia jasangarria eskaintzen ditu. Gurasoek eta haurrek behar duten guztia gertu izango dute.

